

GETXOKO ERAKUSLEIHOEN XXVIII. LEHIAKETAN (2018) PARTE HARTZEKO OINARRIAK

GETXO ENPRESAK (Getxo Enpresa eta Merkataritza) **GETXOKO ERAKUSLEIHOEN XXVIII. LEHIAKETA (2018)** antolatu eta parte hartzeko deialdia egin du. Lehiaketan udalerriko enpresa guztiek parte hartu ahal izango dute, Getxo Enpresako kide izan edo ez, eta euren ekonomia-jardueraren sektorea edozein dela ere (**MERKATARITZA, OSTALARITZA eta ZERBITZUAK**), baldin eta horietako bat (edo biak) badute: **ERAKUSLEIHO FISIKOA** –jendeak kanpotik ikus ditzakeen elementuak, produktuak erakusteko espazio batekin edo hori gabe– eta/edo **ERAKUSLEIHO BIRTUALA** –enpresaren webgunea eta/edo sare sozialetako profilak–.

HELBURUAK

Getxoko enpresa sarearen irudia indartu eta sustatzea, Getxoko Erakusleihen Lehiaketaren XXVIII. edizioan parte hartzen duten enpresen erakusleiho fisiko eta birtualen hautagaitza proposatuz. Getxoko enpresen sormena eta profesionaltasuna sustatzea, eta lehiaketara aurkeztutako proposamen onenak aintzatetsi eta saritzea.

GAIA

Gaia librea izango da; enpresaren jarduera ekonomikoarekin bat etorri beharko du. Edozein teknika eta estilo erabil daiteke.

Lehiaketaren edizio honetan, azken hiru urtean lehiaketan parte ez duten eta aurtengoan –kategorietako batean edo bietan– izena eman duten enpresek “Erakusleiho Berria” sari berezia irabazteko aukera izango dute. Saria erakusleiho fisikoaren nahiz birtualaren modalitaterako ezarri da.

Gaia erasokorra, baztertzaila edo iraingarria bada, eta/edo ingurumenaren egonkortasuna kaltetzen duten osagaiak erabiltzen badira, enpresa lehiaketatik baztertuko da.

ERAKUSLEIHOEN BALORAZIOA (EPAIMAHAIK)

EPAIMAHAI PROFESIONALA

Getxo Enpresak izendatuko du epaimahaia, eta honako arlo hauetako profesionalek osatuko dute: erakusleiho-apainketa, diseinua, informatika eta teknologia berriak.

Erakusleiho fisikoetan sormena, diseinu estetikoa, enpresaren jarduerarekiko koherentzia eta egindako lanaren berritasuna baloratuko ditu epaimahaiak.

Erakusleihen birtualetan, aldiz, honako hauek baloratuko dira: webguneen kasuan, balio estetikoa, eraginkortasuna, erabilgarritasuna eta irisgarritasuna (edukiaren egituraketa, nabigagarritasuna, gailu desberdinetara egokitzea eta abar), berritasuna, eskaintzen diren zerbitzuak eta funtzioak, eta 2018an zehar egindako aldaketak eta egokitzapenak; sare sozialen kasuan, testua, edukiaren kalitatea, mezua, estrategia (albisteak argitaratzeko maiztasuna) eta elkarrekintza (beste sare sozialetako profil batzuekin osatzeko ahalmena eta abar).

Abenduaren 11tik 16ra bitartean, Epaimahai Profesionalak lehiaketara aurkeztuko diren erakusleihen fisiko eta birtualak baloratuko ditu.

Epaimahai Profesionalak egoki deritzen sariak eman gabe utz ditzake, eta epaimahaiaren epaia apelaezina izango da.

HERRI-EPAIMAHAIA

Herri-epaimahaia izendatu da, herritarrek enpresen kanpoko irudiari buruz duten iritzia jakiteko, lehiaketan parte hartzen duten enpresak biztanleei ezagutarazteko eta horietara hurbiltzeko ere.

Edonork har dezake parte herri-epaimahaian, eta erakusleihen fisikoak zein webgunekoak www.getxoenpresa.com webgunearen bidez baloratu.

Herri-epaimahaiko kide gisa parte hartzen dutenek honako bi sari hauek irabazteko aukera izango dute: 100 €-ko 2 opari-txartel, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan gastatzeko.

Herri-epaimahaian parte hartzen duten pertsona guztien arteko ausazko zozketa baten bidez hautatuko dira saridunak.

Irabazleak edo bere ordezkariak izendatu duen pertsona batek saria jasotzera joan beharko du lehiaketa antolatzen duen erakundeak adierazitako egunean eta orduan. Hori egin ezean, ezin izango du saria jaso.

Herri-epaimahaiak abenduaren 12tik 16ra lehiaketara aurkeztu diren erakusleihen fisikoak eta birtualak baloratuko ditu.

Epaimahai profesionalaren eta herri-epaimahaiaren epaia abenduaren 31 baino lehen jakinaraziko da, eta www.getxoenpresa.com webgunean argitaratuko dira epaimahai biek hautatutako irabazleak.

SARIAK

ERAKUSLEIHO FISIKOEN SAILKAPEN OROKORRA,

- 1. saria:** Gabonetako otzara + erloju bat + koadro bat + establezimenduan irratiko programa bat egitea.
- 2. saria:** Gozokien otzara + 300 €-ko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan gastatzeko + nabarmentzen den esparrua hedabide digitalean, 4 astebetez.
- 3. saria:** Kalitate-ikurra duten Euskadiko produktuen otzara + 200 €-ko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan gastatzeko + 8 publizitate-modulu prentsa idatzian.

4. **saria:** 2 gaueko egonaldia 2 lagunarentzat SPA duen hotel batean, gosari eta SPA zirkuitua barne + 10 publizitate-modulu prentsa idatzian.
5. **saria:** Kosmetika-produktuen otzara + 100 €-ko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan gastatzeko + 8 publizitate-modulu prentsa idatzian.
6. **saria:** Kosmetika-produktuen otzara + kontserba-produktuen sorta + 25 irrati-iragarki labur.
7. **saria:** Gozokien otzara + esneki sorta + nabarmentzen den esparrua hedabide digitalean, 3 astebetez.
8. **saria:** 2 lagunarentzako bidai bat belaontziz + nabarmentzen den esparrua hedabide digitalean, 2 astebetez.
9. **saria:** 2 pertsonarentzako nutrizio diagnostikoa eta entrenamendu pertsonaleko saioak + 25 irrati-iragarki labur.
10. **saria:** Kalitate-ikurra duten Euskadiko produktuen otzara + nabarmentzen den esparrua hedabide digitalean, astebetez.
11. **saria:** Kosmetika-produktuen otzara + 10 publizitate-modulu prentsa idatzian.
12. **saria:** Operarako 2 sarrera + nabarmentzen den esparrua hedabide digitalean, astebetez.
13. **saria:** 100 €-ko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan gastatzeko + kontserba-produktuen sorta.
14. **saria:** Kosmetika-produktuen otzara + 8 publizitate-modulu prentsa idatzian.
15. **saria:** Kontserba-produktuen sorta + 8 publizitate-modulu prentsa idatzian.
16. **saria:** Esneki sorta + 6 publizitate-modulu prentsa idatzian.
17. **saria:** Haur-operarako 2 sarrera + nabarmentzen den esparrua hedabide digitalean, astebetez

ERAKUSLEIHO BIRTUALEN SAILKAPEN OROKORRA,

1. **saria:** Kalitate-ikurra duten Euskadiko produktuen otzara + operarako 2 sarrera + koadro bat + 14 publizitate-modulu prentsa idatzian.
2. **saria:** 2 gaueko egonaldia 2 lagunarentzat SPA duen hotel batean, gosari eta SPA zirkuitua barne + operarako 2 sarrera + nabarmentzen den esparrua hedabide digitalean, 4 astebetez.
3. **saria:** 200 €-ko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan gastatzeko + esneki sorta + 10 publizitate-modulu prentsa idatzian.
4. **saria:** Bi lagunarentzako irteera belaontzian + 100 €-ko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan gastatzeko + 12 publizitate-modulu prentsa idatzian.
5. **saria:** Kosmetika-produktuen otzara + 100 €-ko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan gastatzeko + operarako 2 sarrera.
6. **saria:** 2 lagunarentzako bidai bat belaontziz + 2 pertsonarentzako nutrizio diagnostikoa eta entrenamendu pertsonaleko saioak.
7. **saria:** 100 €-ko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan gastatzeko + 12 publizitate-modulu prentsa idatzian.

8. saria: Gozokien otzara + 25 irрати-iragarki labur.

9. saria: Kontserba-produktuen sorta + 8 publizitate-modulu prentsa idatzian.

10. saria: Esneki sorta + nabarmentzen den esparrua hedabide digitalean, astebetez.

11. saria: Kontserba-produktuen sorta + 6 publizitate-modulu prentsa idatzian.

12. saria: Haur-operarako 2 sarrera + nabarmentzen den esparrua hedabide digitalean, astebetez.

SAILKAPEN BEREZIAK

Herri-epaimahaiaren saria Erakusleiho Fisikoen kategorian (*): Haur-operarako 2 sarrera + esneki sorta.

Herri-epaimahaiaren saria Erakusleiho Birtualen kategorian (*): Haur-operarako 2 sarrera + 100 €-ko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan gastatzeko.

Sari Berria Erakusleiho Fisikoen kategorian: Kosmetika-produktuen otzara + nabarmentzen den esparrua hedabide digitalean, astebetez.

Sari Berria Erakusleiho Birtualen kategorian: 100 €-ko opari-txartela, lehiaketan parte hartzen duten enpresetan gastatzeko + 25 irрати-iragarki labur.

Lehiaketan parte hartzen duten enpresen artean bi sari hauek zozkatuko dira: Batetik, Nabarmentzen den esparrua hedabide digitalean, astebetez; eta bestetik, kontserba-produktuen sorta.

() Herri-epaimahaiak emandako bi sariak ezin dakizkioke enpresa berari eman, lehiaketako sariak enpresa ezberdinetan banatzeko. Horrenbestez, betiere aipatutako egoera suertatuko balitz, enpresari legokiokeen saria Erakusleiho Fisikoa edo Erakusleiho Birtuala sailkapenari legokiokeena izango litzateke, zeinetan boto-kopuru gehien lortu duen; bestalde, beste sailkapenean hurrengo boto-kopurua lortu duen enpresari herri-epaimahaiak emandako beste saria legokioke.*

IZENA EMATEA ETA PARTE-HARTZEA

Getxo Enpresako kideek doan eman ahal izango dute izena lehiaketan, eta bazkide ez diren enpresek, aldiz, 28 € + % 21eko BEZa ordaindu beharko dute izena emateko.

Lehiaketan izena emanez gero, honako eskubide hauek izango dituzte enpresa parte hartzaileek:

- Lehiaketako bi modalitateetan –erakusleiho fisikoaren nahiz web erakusleihoaren modalitatean– parte hartzea, baita "Erakusleiho Berria" saria eskuratzeko aukera izatea ere (lehiaketan azken hiru urtean parte hartu ez duten enpresentzat).
- Enpresaren publizitatea eta promozioa.
- Lehiaketako sariak eskuratzeko aukera.
- Sariak banatzeko ekitaldira joan ahal izatea (gehienez ere bi pertsona enpresa bakoitzeko).

Lehiaketan izena emateko epea azaroaren 13an hasi eta abenduaren 10ean amaituko da, eguerdiko 12:00ak arte.

Lehiaketan izena emateko, www.getxoenpresa.com webgunearen bidez egin daiteke, info@getxoenpresa.com posta elektronikoz edo Getxo Enpresaren egoitzan. Lehiaketara aurkezten diren establezimendu edo bulegoen izen komertziala, jarduera ekonomikoa, telefono-zenbakia eta helbidea(k) adierazi behar dira, eta, hala badagokio, enpresaren webgunea eta sare sozialen helbideak.

Horrez gain, Getxo Enpresaren kide ez diren enpresek izena emateko kuota ordaindu beharko dute www.getxoenpresa.com webgunearen bidez edo erakundeak emandako kontu korrontean.

Erakusleiho fisikoko modalitatean parte hartzen duten enpresek lehiaketara aurkeztuko duten erakusleihoaren argazki bat (formatu horizontalean, .jpg edo .png formatuan eta bereizmen onarekin) bidali beharko dute posta elektronikoz, info@getxoenpresa.com helbidera, erakusleihoa atondu bezain azkar, abenduaren 10eko 12:00ak baino lehen.

Erakusleiho fisikoa modalitatean parte hartzen duten enpresek lehiaketaren kartela jarri beharko dute ikusgai. Getxo enpresak emango die kartela, eta lehiaketan aurkezten duten erakusleihoaren kanpoko aldetik ikusteko moduan jarri beharko dute. Ez bada hala egiten, enpresa lehiaketatik kanporatuko da.

Zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek osorik onartzen direla, baldintzarik gabe. Gainera, Getxo Enpresak, erakunde antolatzailea izanik, oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein gairi buruz erabakia hartzeko eskubidea gordetzen du.

GETXO ENPRESAK, G48204655 IFK zenbakia duenak, zure datu pertsonalen tratamenduaren arduradunak, jakinarazten dizu, 2016ko apirilaren 27ko Datuen Babesaren Araudi Orokorrean adierazitakoaren arabera, zure datu pertsonalak jaso eta tratatzeko orduan araudi horrek finkatutako neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak aplikatzen dituela, arduradunaren produktu eta zerbitzuak eskaintzeko asmoz, baita edonolako jakinarazpen bidaltzeko asmoz ere, hartara izendatutako bitartekoen bidez. Zuk, ukitutako edo interesdun gisa, eta datuen titular gisa, zeure adostasuna eta baimena ematen dituzu datuok arduradunaren datu-basean sartzeko. Nolanahi ere, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, mugatzeko, lekualdatzeko eta aurka egiteko eskubideak dohainik bete ditzakezu, arduradunarengana joz: Arene kalea 22, Getxo, 48991, Bizkaia. Gutunean "RGPD" (Datuen Babesaren Araudi Orokorra) aipatu beharko duzu.